



2008KO AZAROAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko azaroaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Amagoia Naldaiz Mingo eta Ángel Hernández Marzal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da M^a Lourdes Garmendia Guerra zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko urriaren 30ean egindako bilkurako akta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aktaren 12. puntuan, Udalhitzen onarpenari dagokionean, beraiei garrantzitsua iruditzen zaien puntualizazio bat ez dela jasota agertzen, hau da, beraien botoa aurkakoa izan zela baina ez zela langileen aurkako eraso batzik eta neurritz kanpoko igoera zelako.

Hau esanda, gainontzean eta beraratutako guztien adostasunarekin, akta idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

...///...

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenak irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	708.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		708.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
	Sarrera handiagoak:	
I	Zuzeneko zergak	130.000,00 €
II	Zeharkako zergak	110.000,00 €
III	Tasak eta bestelako zergak	93.000,00
VII	Kapital transferentziak	375.000,00
GUZTIRA		708.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

...///...



...///...

IV.- HAURTZAINDEGIA ERAIKITZEKO LANEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA.-

"Lazkaoko Euskadi Enparantzan, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren aldamenean, hartzaindegia eraikitze" proiektuko lanen burutzea presakazko prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

2008ko azaroaren 5ean, Alkateak, kontratuaren presazko izaera dela medio, Alkatezaren ebazpen bidez kontratua behin behingoz Miguel Imaz, S.A.ri esleitzea ebatzi zuela kontutan izanda.

Behin behineko esleipena lizitatzailer guztiei jakinarazi zitzaizela eta halaber kontratatzaileraren profilean argitaratu zela kontutan izanda.

Behin behineko esleitzailerak behin betiko bermea eta halaber eskatutako dokumentazio zurigarri guztia aurkeztu duela kontutan izanda.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehen.- "Lazkaoko Euskadi Enparantzan, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren aldamenean, hartzaindegia eraikitze" proiektuaren obrak egiteko, udalarentzat proposamenik abantailatsuna izateagatik Miguel Imaz, S.A.ren alde eta ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUNE TA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMOTAKO (770.578,34€) prezioan, B.E.Z. barne, egindako kontratuaren behin behineko esleipena behin betikoa bihurtzea.

Bigarren.- Indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 1 0000.622.423.00.01 partidaren kargura 93.502,57€ko gastua erabiltzea eta datorren urteko aurrekontuko partida beretik 677.075,77€ erabiltzeko konprometua hartzea.

Hirugarrena.- Esleipendunak izan ez diren proposamen aurkezle guztiei behin betiko esleipena jakinaraztea.

Laugarrena.- Esleipendunari kontratuaren behin betiko esleipena jakinaraztea eta 2008ko abenduaren 15ean, eguerdiko 12:30tan izango den kontratu izenpetzea etor dadin deitzea.

Bosgarrena.- "Lazkaoko Euskadi Enparantzan, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren aldamenean, hartzaindegia eraikitze" obra kontratuaren behin betiko esleipena kontratatzaileraren profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Seigarrena.- Kontratua formalizatu ondoren, kontratistak proiektuaren Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, udalak, aurrez Segurtasun eta Osasun koordinatzailearen txostena ikusi ondoren, bere onarpena eman dezaion. Tramite hau egin ondoren birplanteatze akta egin eta lanei hasiera emango zaie.

...///...

...///...

V.- AA.SS.EN BERRIKUSKETAREN BATEGINDAKO TESTUA: 2008KO APIRILAREN 3KO OSOKO BILKURAN ONARTUTAKO DOKUMENTUARI ZATI BATEAN EGOKITZAPENAK ONARTZEA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen dokumentuaren inguruan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12ko batzarraldian hartutako akordioa betetzeko, Udal honek, 2008ko apirilaren 3ko osoko bilkuran aipatu ondorioetarako idatzitako testu bateratuari onarpena ematea erabaki zuen.

Aipatu dokumentua Foru Aldundira igorrita, erakunde honek behin-betikoz onartzeko, bertatik jakinarazi zaigu zenbait ataletan akatsak eta ez-aipatzeak antzeman direla. Hauek zuzendu eta osatzeko, talde teknikoak puntu horiek zuzentzen dituen dokumentazioa idatzi du.

Azaldutako aurrekinetatik ondorioztatzen denez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, zein lurzoruari buruzko legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko legegintzako 2/2008 Errege-Dekretuko Bederatzigarren Xedapen Gehigarriak aldatzen duen, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, hau da, gehiengo osoarekin, erabakitzen du:

BAKARRA.- Aipatutako dokumentazio zuzentzaileari onarpena ematea eta berau Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, dagokion espedienteari gehitze ondorioetarako.

VI.- BEASAIN ETA LAZKAOKO UDAL-BARRUTIEN ARTEKO MUGAKO MUGARRIEN IKUSKAKETA ETA FALTA DIRENEN BIRJARPENA EGITEKO ESPEDIENTEA HASTEA.-

Beasain eta Lazkao udal-barrutien arteko mugako lerroa eta bi udalerrien arteko mugarriak jartzeko 1942an jasotako akta oinarritzat hartuta, eta tokian hala egiaztatu denez eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuak egindako txostenean ere horrela jasotzen denez, hainbat mugarri falta direla kontutan hartuta, aipatutako udal-barrutiak mugatzen dituzten eta falta diren mugarriak ikuskaketu eta birjartzeko helburuarekin espedientea hastea beharrezkoa egiten da.

Hau honeka eta Gipuzkoko udalerrien mugaketa arautzen duen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren aurrikuspenekin adostasunean, dagokion espedientea hastea proposatzen da.

Adierazitako ordenean, espedientea hastearen akordioa hartzearekin batera batzorde bat osatu behar da, batzorde hori alkatea, bi zinegotzi, idazkaria eta teknikari batek osatuz.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Beasain eta Lazkao udalerrien arteko mugako mugarrien ikuskaketa espedientea hastea, ez dauden mugarriak bere lekuan birjarritz.

2.- Aipaturiko zereginak egiteko batzordea izendatzea, Lazkao Udalari dagokionean batzorde hori honako hauek osatuko dutelarik:

...///...



...///...

- Alkatea.

- Bi zinegotzi:

- Felix Urkola Iriarte
- Inazio Estensoro Eskisabel

- Udal Idazkaria.

- Teknikaria: Udal Arkitekto Teknikoa.

3.- Akordio hau Beasaingo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta eta mugarriak jarrita dauden edo, falta direnen kasuan, egon behar luketen puntuetako lursailen jabeai jakinaraztea.

VII.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA GARATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA LAZKAOKO UDALAREN EUSKARA ERABAILERA PLANA.-

Alkateak hitza eman ondoren Euskara Batzordearen presidentea den Xabier Arrasate zinegotziak, onarpenera jartzen diren proposamenen azalpena egiten du.

Sena zinegotziak (PSE-EE) esaten du onartzea proposatzen denaren testua izaten dutenean beraien iritzia eman ahal izango dutela baina une honetan ez daukatela, gainera beraiek dakitenez gai hau dagokion batzordean ere ez da informatu.

Xabier Arrasate zinegotziak esaten du gaia aurtan onartu nahi dela eta proposamena korrika eta presaka egin dela eta ez dela denborarik egon dokumentazioa prestatu eta bidaltzeko.

Une honetan M^a Lourdes Garmendia Guerra zinegotzia bertaratu da.

Honen aurrean, Alkateak esaten du, hau honela baldin bada, gaia mahai gainean uzten dela eta dokumentazioa banatu eta gaia batzordetik pasatu ondoren berriro ekarriko dela gaia beste osoko bilkura batetara.

VIII.- PENTSIO OSAGARRIEN ALDEKO EAJ ETA EB-B UDAL TALDEEN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Pasadan ekainaren 25ean Eusko Legebiltzarrak 8/2008 Legea onartu zuen Gizarte bazterketaren legea eta Eskubide sozialen kartaren legea aldatzen duena, "Pentsio osagarriaren legea" deritzona. Lege honen aplikazioak gutxienez 700€ko diru-sarrera dakar orain arte batz bestea 411€ko diru-sarrera izan duten 20.000 lagunentzat.

Irailaren 24ean Estatuko Administrazio Publikoen Ministerioak eskutitza bidali zion Eusko Jaurlaritzari, Pentsioen osagarriaren legea ustez Estatuaren eskumenen barne egon daitekeela eta bere aplikazioan arazoak sor daitezkeela ohartarazteko.

...///...



...///...

Hala ere, akordioak bilatuko ditugu euskal gizartearen onerako: gure helburu nagusia izango da krisialdi ekonomikoaren aurka modu eraginkorrean jardutea. Eta ezetz dioten bakoitzean, erantzun positiboak emango ditugu, beti egin izan dugun moduan.

Estatuko Gobernuak harmonizatzen saiatzen den bakoitzean, euskaldunon bizitza kalitatea murriztea dakar. Eusko Legebiltzarrak eskumen osoa dauka herritarrak bazterketa soziale-tik ateratzeko legeak egiteko.

Eusko Legebiltzarraren eskumen eremua defenditzeko eta 20.000 euskaldun baino gehia-gok bizimodu duinagoa izan dezaten eta hilerio 700 euroko gutxieneko soldata har deza-ten Lazkaoko EAJ-PNV eta EB-B udal taldeek Udalbatza Osoan ondokoa onartzea propo-satzen du:

1. Lazkaoko Udalak Espainiar Gobernuari eskatzen dio Diputatuen Kongresuan eska-tutako kopurura arte igo ditzala pentsiorik baxuenak.
2. Lazkaoko Udalak Espainiar Gobernuari eskatzen dio, pentsioak igotzeko konpromi-soa betetzen ez duen bitartean, errespetatzea dezala gizarte laguntzan dugun esku-men esparrua, gure instituzioek gutxienez pentsio hauek osatzeko modua izan de-zaten.

Lazkaoko Udalak bere hiritar guztiei gogorarazi nahi die pentsio baxuenen osagarria har-tzeko eskubidea dutela, eta udalera hurbiltzeko gomendioa luzatzen die, informazio zaba-lagoa izan dezaten eta osagarri hau al bait arinen tramita dezaten."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo direla, ez proposamena beragatik baizik eta Legebiltzarrean erabili zen formula ez zela egokiena izan iruditzen zaielako. Eta gehitzen du Legebiltzarra ez zela fororik egokiena hau egiteko.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du eztabaida sortzen dela Estatuko Herri Admi-nistratortik gaiarik irtenbiderik ematen ez zaionean Eusko legebiltzarretik ematea planteatzen denean.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Sernari erantzunez esaten dio arrazoi izango lukeela azken 20 urtetan gertatutakoaz ahazten bagera baina aitortu beharko duela oraindik ho-geitik gora konpententzi transferitzeke daudela.

Eztabaidaren ondoren mozioa bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE, PP) mozioa onartu egiten du.

IX.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, EAJ ETA EB-B UDAL TALDEEN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"2008ko azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Aurton ere, berriro salatzeke eguna izango da. Milaka urte igaro dira, haitzulo-

...///...



...///...

etako gizonek emakumeak herrestan eramaten zituztenetik, kobazuloetan bortxatu eta objektu moduan tratatzeko asmoz. Milaka urte igaro diren arren, oraindik gizon batzuk uz-kurtuta itxaroten dute tunel ilunen azpian edo gune beltzetan, beste pertsona baten aurkako eraso, krimena egiteko. Ekintza higuigarri horren alderdi kezagarriena ez da beste gizaki baten eskubideak, osotasun fisikoa eta psikikoa urratzea, urteen joan-etorrian hezkuntza gero eta handiagoa izan arren, erasotzaile gehienak gizon gazteak izatea bai-zik.

Zenbakien gizartea gara eta zenbaki horiek oraindik ere nagusi den gizarte-gaitz larriaren adierazgarri ezin hobeak dira. Esate baterako, Estatu espainolean eraildako 80 emakume-etatik, hiru bizi ziren Euskadin, eta beste 270 emakumek eraso sexualak jasan dituzte gure erkidegoan, Lege Medikuntzaren Euskal Institutuko datuen arabera.

Datu izugarriak dira benetan, eta are larriagoak dira, gehienetan gizon gazteek egin dituz-tela jakitean. 2008an gaude, eta, kontzientziazio-kanpainak, berdintasunerako hezkuntza-saialdiak eta gobernuek aldarrikatutako legeak abian jarri badira ere, gero eta eraso gehiago jasaten dituzte emakumeek. Izan ere, zenbait azterketa soziologikotan adierazi dutenez, gure gazteen jokabide-ereduak gizonen nagusitasunean daude oinarrituta.

Hori dela-eta, Lazkaoko Udalak:

1.- Gizonei, emakumeei, hezkuntza-erkidegoari, erakundeei, gizarte-eragileei eta gizarte-ari eskatzen die genero-indarkeriaren aurkako borroka, berdintasunerako hezkuntza eta herritarren kontzientziazioa agendetako lehentasunezkoa helburuak izan daitezela.

2.- Erakunde publikoei eskatzen die ahalik eta baliabide gehienak erabili ditzatela, genero-indarkeriari behar besteko baliabide material, pertsonal eta ekonomikoen bitartez bete-betea aurre egin ahal izateko.

3.- Administrazio publiko guztien koordinazio politiko eta administratibopean, premia-estatu-ituna egin dadila eskatzen du, gizarte-gaitz horri aurre egin ahal izateko. Emaku-meenganako indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egin dugun arren, ez gara behar den moduko gizartea izango, emakumeen aurkako eraso sexual, tratu txar edo irain bakar bat gertatzen den bitartean.

4.- Gizonei eskatzen die bide horretan gero eta gehiago inplikatzeko. Euren laguntza fun-tsezkoa da, gizarte-jokabide zaharkituak aldatzeko eta bi sexuak lankidetzaren, errespetu-aren eta berdintasunaren bide bakarretik bilakatzeko. Izan ere, egiak askatu egiten baga-itu, berdintasunak hobeak egingo gaitu."

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak eman ondoren Irantzu Amundarainek esaten du mozioa ondo dagoela baina zerbait gehiago egitea ere ez litzakela gaizki egongo eta datorren urterako ekintzaren bat prestatzea planteatzen du.

Alkateak erantzuten dio ondo iruditzen zaiola.

Jendartetik baita ere eta alkateak hitzegiteko baimena eman ondoren Joseba Her-nandezek esaten du beraiek ez daudela ados erasoak leku ilunetan eta gertatzen direla

...///...

...///...

esatearekin, mozioan esaten den bezala, erasoak etxe aberatsetan gertatzen direlako baita ere.

Alkateak erantzuten dio horrekin ere ados dagoela.

Guzti honen ondoren eta mozioa bozketan jarri ondoren, Osoko Bilkurak, vertarutako bere partaide guztien aldeko botuekin, mozioa onartu egiten du.

X.- AKORDIO EZEZTATZEA.-

Alkateak esaten du ildo honetan komunikabideetatik jasotako albisteen ondorioz eta udal honen osoko bilkuretako garai bateko aktak irakurri ondoren, ikusi ahal izan da beste udal askok bezala Lazkaoko Udalak ere, 1949ko abuztuaren 21ean egindako bilkuran, Franco ohorezko alkate izendatzea erabaki zuela. Gaineratzen du denok dakigula erabaki hauek nola eta zergaitik hartzen ziren eta hau honela akordio hau bertan behera uztea proposatzen duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ados daudela proposamenarekin eta ea beste udalerrietara ere zabaltzen den.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du proposatzen dena bidezkoa dela oroitzapen historikoa izatea den bezalaxe.

Gaia bozketan jarri eta Udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Franco Lazkaoko ohorezko alkate izendatzen zeneko akordioa ezeztatzea erabakitzen du.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

